

## 2025EKO ABENDUAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko abenduaren 1ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 91 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA LAU MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro ETA HOGEITA SEI zentimokoa (64,154,26 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### II.- HIRIGOIEN 56-58AN BULEGOETRAKO 2 LOKAL GAITZEKO LANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

2. Obra Ziurtagiria: 70.273,18 € (BEZa barne).

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, bigarren obra egiaztatiri hau (likidazioa) onartu egin du.

### III.- MEANDRO ALDEKO OINEZKOENTZAKO BIDEA EGITEKO LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

2. Obra Ziurtagiria: 110.824,98 (BEZa barne)

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), lehenengo obra egiaztatiri hau onartu egin du.

### IV.- LAZKAOKO MUSIKA BANDARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN ZUZENKETA.-

Azaroaren 17ko gobernu batzordean Bandak udako kontzertua antolatzeagatik dirulaguntza ematearen proposamena atzera botatzea, ordainketa aurrez egin dagoelako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

## V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

### Euskara ikasten ari direnei.-

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bat izan da eta emango zaien kopurua 275,00 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

### Euskara ikasteagatik dirulaguntza oinarriak.-

Norgehiagoka-erregimenean euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntzak arautzeko oinarrien aldaketa proposamena.

## VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueren dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

### - Merkatariei irekiera eta obra diru laguntza.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025erako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa), eskaeren diru laguntzaren onarpena egitea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

Guztira 10.468,00 €

### - Merkatarien bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritza sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko urrian martxan jarritako erosketaren bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatariek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei hirugarren ordainketa egitea.

Guztira 4.477,50 €

VII.- "ALTXA BURUA" MUGIMENDUARI ATXIKITZEA.-

Gazteria Batzordetik luzatutako proposamena, Altxa burua mugimenduarekin atxikimendua.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago galderarik

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.